

BERRIGARA

2. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, ekainak 6



Bizirik nahi Eskola txikiak

FIAT



Alfa Romeo

AUTOBEREZI

Antigua, 10 Antzuola Tf. 76 62 10

Pintxo bereziak, kazuelitak, bokadiloak, plater konbinatuak...
edota kopatxo bat lagun artean hartu nahi baduzu, zatoz Kayak tabernara.
Berriz zabaldu dugu Matxiategi 3 behean.

Telefonoz ere hartuko dizugu enkargua. Tf. 76 70 11



JABE BERRIAK

KAYAK

Bere zerbitzuan egingo dituen aldaketa batzuk direla eta...

Marcó paperdendak lorearen ikurra duen produktu bakoitzean

%40 ko beherapena egingo dizue!

Aprobetxatu aukera! Ekainean zehar bakarrik!

Marcó

Bidekurutzeta, 44. Telefonoa: 76 05 5

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar

Maketazioa:

Iñaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.500 ale.

Inprimategia:

Bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako isanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek ipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

GOTZON IPARRAGIRRE

Mariaren Lagundiko irakaslea

- Azkenean, domeka honetan ospatuko duzue eskolako jaia...

- Horrela da, bai. Joan zen domekan, eguraldi txarragatik, jaia bertan behera laga behar izan genuen. Egitaraua joan zen astean iragarritakoa izango da. Egun guztian zehar ekitaldiak izango dira: 10etan meza, ondoren kiroletako finalak eta kukainak, ordu batean paella lehiaketa, arratsaldean kukainak eta marrazki lehiaketa, karaokea eta, jaiari amaiera emateko, 7etan dantzaldia. Era berean, gaztelu puzgarriak eta bestelako jolasak izango dira. Ea eguraldiak laguntzen duen...

- Noiztik ospatzen da Mariaren Lagundiko jaia?

- Aspalditik. Herri



osoari begira ospatzen den jaia da eta herritar guztiak etorri daitezke. Gurasoek beste ekintza batzuk finantziatu ahal izateko jartzen duten tabernaz gain, aurten ikasbidaia egingo duten REM 2. mailako ikasleek ere salmenta postua jarriko dute dirua jasotzeko. Ekainaren 21etik 27ra bitartean 27 lagun joango dira Bartzelonara.

“Domekan izango den eskolako jaia herri osoari begira ospatzen den jaia da”

I T U R R I O N E T I K

Anje Duhaldek bere disko berria aurkeztuko du Jam aretoan

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak antolatuta, Anje Duhalde Iparraldeko kantariak bere azken diskoa aurkeztuko du Jam aretoan datorren zapatuan, ekainak 14. Anje Duhaldek “Azkarate” izenburuko diskoa kaleratu berri du eta disko horretako kantuak zein aurreko lanetakoak eskeiniko ditu Bergaran. Anje Duhalde, Michael Ducaurekin batera, Errobi taldearen sortzailea izan genuen 1970eko hamarkadan eta ondoren Akelarre taldearekin ere ibili zen plazarik plaza. Zapatuko kontzerturako sarrerak 1.200 pezetan jarriko dira salgai eta emanaldiaren ostean Egin Irratiko *Igo bolumena* saioko kide bat izango da diskoak jartzen.

E S A N
D U T E

“Desoreka da nagusi gure munduan. Gutxiengo aberats batek dirutza ikaragarriak ditu; beste asko, ostera, ezin dira gutxieneko duintasunez bizi euren jaioterrian.

Teknologia, komunikazioa eta diruaren gorabeheren menpe dagoen munduan bizi gara. Kotxea japoniarra izateak, hartzen dugun kafea argeliarra izateak edota oporrak Marokon igarotzeko ez digu inolako arazorik sortzen, baina kontuz!

Gauzak mugitu daitezke, bai; animaliak ere bai; pertsonak ez ordea. Pertsonak euren jaioterriari lotuta jarraitu beharko dute (ez dakigu zer madarikazio ezezagun dela medio), trabarik egin ez diezaguten, bestela ere ez dauzkagu

lanpostuak kendu ez diezazkiguten. Pobreziatik irtetzea, oraina zein geroa blokeatzen duen egoera politiko eta sozialetik irtetzea, gizakiok beti izan dugun eskubidea da”

AGUSTIN UNZURRUNZAGA
SOS Arrazakeria
EGIN



EL SANTO

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).



FRANKIE STARLIGHT

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

▼▼ **Punk-rock kontzertua.**

Gaur, ostirala, gaueko 10:30etatik aurrera The Cowslingers (argazkian), Yage eta La Sectaren kontzertua izango da Jam aretoan. Punk-rock, garaje eta country soinuak entzuteko aukera ederra. Bestalde, datorren eguenerako, gaueko 10:30etan, Zazpiki taldearen emanaldia iragarri dute.



▼ **Zinea**

▼▼ **Philip Noyce** zuzendariak (*Juego de patriotas*) garai bateko telebistako "santuaren" abenturak pantailaratu ditu. *Tretriak* izeneko industri gizon errusiarrek *Templar* (**Val Kilmer**) kontratatuko du formula zientifiko baliotsu bat lortu diezaion. Mozorratzen aparteko maisua izanik, egoera arriskutsuenei aurre egingo die, nahiz eta formula egilearekin (**Elisabeth Shue**) maitemindu...

▼▼ **Michael Lindsay-Hogg** zuzendariaren filme honetan, **Matt Dillon, Corban Walker, Gabriel Byrne** eta **Anne Parillaud** dira erreparto buruan. *Frankie* gazteak (**Walker**) bere amaren historia kontatuko digu. Gerra ostean Frantziatik Estatu Batuetara alde egin nahi izango du, baina Irlandan amaitu eta amak zein semeak amodioa aurkituko dute...

▼ **Deiak**

▼ **Mendi irteera.** Alpino Goralak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak ekainaren 21ean eta 22an Carrionera joateko irteera antolatuta dute. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Odol ateraldia** eguastenean, hilak 11, 18:30etatik aurrera Seminarioko lokalean.

▼ **Benita Gallastegi** bergararren oleo erakusketa Nahikari tabernan ikusgai ekainaren bukarara arte.

▼ **Jon Balentziaga**ren margoak eta eskulturak Arrasateko Aita Menni ospitalean ekainaren 20ra arte.

▼ **Erakusketa.** Fernando Arenaza eta Juanjo Altunaren margoak Donostiako Olaetxea galerian (Alapeta, 5) ekainaren 11ra arte.

▼ **Ogia**

▼ **Domeka 8:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 6:** Puy.
- ▼ **Zapatua 7:** Guallar.
- ▼ **Domeka 8:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 9:** Estella.
- ▼ **Martitzena 10:** Mozos.
- ▼ **Eguaztena 11:** Camacho.
- ▼ **Eguena 12:** Puy.

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

Kirol argazkiak

Lehiaketara aurkeztutako argazkiak ikusgai

Domekara arte kirol argazkien erakusketa ikusgai egongo da Kultur Etxeko erakustokian. Udaleko Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako Kirol Argazkien Lehiaketan 26 argazkilarik hartu dute parte eta, guztira, 95 argazki izan dira lehian (40 zuri-beltzean eta 55 koloretan).

Herriko partaidetzari dagokionez, lehiaketa honetako zazpigarren edizio honetan, Bergarako bost argazkilarik hartu dute parte. Epaimahaian kirol teknikariak izan dira eta euren erabakiaren arabera, hauek izan dira aurtengo saridunak: zuri-beltzean, Berangoko Javier Ferrersek eraman du lehen saria, Jose Ramon Larrañaga azpeitiarrarentzat izan da bigarren saria eta hiruugarrena Rafa Rivas laudio-tarrak eskuratu du; koloretan, berriz, Jose Ramon Larrañaga izan da irabazlea, Juan Tolin zarauztarrak jaso du bigarren saria eta Iñaki Delgado donostiarrak hirugarrena. Beraz, ez da bergararik lehen hiruren artean. Kategoria bietan, herriko onena, Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldeko kidea izan da.



Koloretako lehen saria eraman duen Jose Ramon Larrañagaren argazkia.

Kirol guztiak

Erakusketan, lehiaketara aurkeztutako lanik onenak ikusi ahal izango dira. Antolatzaileek 40 argazki aukeratu dituzte, 22 koloretan eta gainontzeko 18ak zuri-beltzean. Hala ere, erakusketan egon zi-

tezkeen lan ugari geratu dira kanpoan espazio faltagatik. Aurreko edizioetan txirrindularitzako argazkiak nagusi izan badira ere, aurtengo lanetan kirol mordo bat isladatu dituzte argazkilariek. Lehiaketan Euskal Herri oso-ko afizionatuek hartu dute

parte eta antolatzaileak pozik daude jasotako erantzunarekin. Esan bezala, erakusketa igandera arte zabalik izango da, goizez 12etatik ordu bietara eta arratsaldez 6etatik 8etara. Bergaran, hurrengo argazki lehiaketa urriko rallya izango da.

Kultur Etxean, era guztietako kiroletako 40 argazki ikusi daitezke domekara arte; horietatik 22 koloretan eta 18 zuri-beltzean

Bolintx
O K I N D E G I A
domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

Zezenzaleak taldeari mila esker

Bergaran, 1997ko maiatzaren 30ean Lerro hauen bitartez nire eskerrik beroenak adierazi nahi dizkizuet Zezenzaleak aurtengo Pazkuetan, zuen laguntzaz, Abdon gure artean izan dugulako.

Abdon Juaristiren lanen ugaritasuna kontutan harturik, ezin da katalogatu "zezen-pintore" bezala, baina Bergarako jaiei dago-kienean behintzat, denok zezenketekin lotzen dugula egia da. Zuek arduratu zarete horretaz: hor daude Abdonek egindako azkenengo hiru urteetako kartelak; eta aurtengo, zirriborroa izanik, besteek duten balioa (sentimentala behar bada) duena niretzat.

Beste gauzen artean, Abdonek Gasteizen egindako egonaldia laburrean bi asmo zituen buruan: ospitaletik lehenbailehen irten beharra zezenketaren kartela bukatzeko eta Donostiako Etxeberria Galerian urrian egin behar zuen erakusketa prestatzen jarraitzea.

Lehenengoa nolabait bete egin da, zuei esker, bukatzeke egon arren kartel on baten tratamendua eman diozuelako.

Bigarrena ere burutuko da. Denak ez dira izango koadro berriak, baina erakusketa egingo da, "bere oroimenez".

Lagun min batek esaten didan bezala: Abdon izkinean batetik dena ikusten egongo da; hori sinistu nahi dut nik ere.

Eskerrik asko, Zezenzaleak.

MERTXE LASA

Ireki ateak beste posibilitate batzuei

Ostegunetan Zine Klub saioetara joan ohi direnetako bat naiz (astero-astero joaten garen taldea sortu baita nahi gabe), eta astebukaeretan ere joan ohi naiz zinera sarritan. Beraz, pelikula dexente ikusten dudanez, zera komentatu nahi nuke, zerbait egitea bere eskuetan duenak kontutan hartuko duelakoan: badakit Novedades aretoko arduradunek pelikulak aukeratzeko erabiliko duzuen kriterio nagusia errentabilitatea izango dela. Logikoa iruditzen zait, kriterio hori gabe gure herriko zine areto bakarraren iraupena ere kondenatuta geratuko bailitzateke.

Baina nire ustez, ostegunetan ematen diren filmeen interesa (artistikoa zein, oro har, bestelakoa), normalean, astebukaerakoena baino handiagoa izaten da; edo behintzat, planteamendu ausartagodunak izaten dira ostegunetako filmeak. Astebukaeretan filme estatubatuarrek ematen dira gehienetan; askotan badakigu filmea nola amaituko den kartela ikuste hutsarekin: mutila eta neska elkartu eta zoriontasuna iradokitzen duen bukaera irekiarekin.



Horregatik, alde batetik ostegunetako emanaldiak eskertzera nator. Zein filme ederrak ikusi izan ditugun! Aire berriekin iritsitako filmeak, ezustekodunak, irudimenaren freskagarri! Eta filme ederregirik gabeko ostegunak egokitu izan zaizkigunean ere, ezezagun den hartara hurbiltzeak ematen duen zirrararen satisfakzioaz geratu gara. Gainera, on bat hartzeko aurretik hiru txar hartu behar badira ere, merezi du.

Baina batera, eskaera bat ere egingo dut: ez dago asteburuetan filme interesgarriarik ematerik? Ez dago estatubatuarretaz gain, beste leku batzuetako filmeak gehiagotan sartzerik? Zertarako hainbeste biolentzia yankidun filme, hainbeste moralina yanki? Ireki diezazkiogun ateak irudimenerari, denon gozamenerako.

E. GARCIA

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Araba euskaraz

Hurrengo domekan, ekainak 15, Oionen ospatuko den Araba euskarazera joateko autobusak antolatu dituzte Jardunek eta Aranzadi ikastolak. Irteera goizeko 9etan egingo da Beheko Estazioan. Izen-ematea Jardunen eta ikastolan.

Mariaren Lagundiako jaia


Mariaren Lagundiko ikasleek ikas bidaiarako dirua biltzeko antolatu duten zozketa domekan egingo da ikastolako jaian. Berrigarar sarituako zenbakiaren berri emango dugu.

Langileen batzarra konbokatzekeo firma bilketari ekingo dio LABek

Tavesa eta Algodone-rako LABek langileen artean batzarra konbokatzea eskatzeko firma bilketari ekingo diotela adierazi zuten eguastenean prentsaurrekoan LABeko ordezkariak. Sindikatu honen us-tetan ezinbestekoa da langileen iritzia jakitea eta estrategia berriak batzarrean aztertzea arazoari irtenbidea topatzeko. *“Maiatzaren 13an negoziazio mahaia apurtu zenetik, ez atzera ez aurrera gaude eta egoera hau desblokeatzeko proposamen berriak egin behar dira”* adierazi zuen Jose Luis Loidik, LAB sindikatuako ordezkariak.

Langileen batzarra konbokatzeaz aparte, enpresari hiru eskari egin nahi dizkio: alde batetik, maiatzaren 13an soldaten inguruan lortu zen aurrea-kordioari (5,75eko igoera eta beste 2,25ekoa finkatu gabeko nominetan, eta KPIko igoera 1998rako) eustea; bestetik, egun horretan aurkeztu zuen etorkizunerako planari (langile berrien inkorporazioa, malgutasuna, jubilazioak, inbertsioak...) eustea, eta azkenik, negoziazio batzordea eratzea.

Tavesako eta Algodone-rako langileek 77 egun daramatzate huelgan eta LABek bere aldetik hartu-



Algodonera eta Tavesako LABekoak eguastekeo prentsaurrekoan.

tako bide honek sindikatu-artekeo estrategia bateratua publikoki hautsi egin du. Hala ere, maiatzaren 13an sindikatuen eta zuzendaritzaren artean egindako bileran sindikatu-artekeo ezberdintasunak agerian geratu ziren, eta harrezkero egin diretan ere bai. Maiatzaren 23an beste bilera bat egin zuten sindikatuek eta zuzendaritzak. Enpresako ordezkariak, Erredakzio Kontseiluaren aholkuei jarraituz, soldaten igoera bakarrik aztertzea proposatu zuten eta ELA alde agertu zen; LABek eta CCOOek, ostera, langile berrien eta inbertsioen gaiak ere negoziatu behar zirela adierazi zuten.

Sindikatuak maiatza-

ren 26an egin zuten azken eskaintza bateratua, baina zuzendaritzak proposamenari ezetza eman zion hurrengo egunean sindikatu-igorritako fax baten bidez.

Ondoren, LABek, bere aldetik, egoera desblokeatzeko idatzi bat kaleratu du sindikatuen estrategia bateratua hautsiz eta firma bilketari ekin dio, ELAri, Tavesa eta Algodone-rako sindikatu nagusiarri, langileen batzarra konbokatzea eskatzeko. Egingo balitz, maiatzaren 13an negoziazio mahaia bildu aurretik zeuden egoerara itzuli eta hortik aurrera negoziatzen has-tea proposatuko luke LAB sindikatuak langileen batzarrean.

HILDAKOAK

Maria Francisca Orbezo Iriarte
Maiatzak 29, 87 urte.

JAIOTAKOAK

Miren Gonzalez Barrutia
Maiatzak 9.

Ana Usabiaga Gutierrez
Maiatzak 9.

Mikel Aguila Olazabal
Maiatzak 10.

Ander Asula Garcia
Maiatzak 14.

Sohaille Akkouch Danouh
Maiatzak 11.

Iosu Gorriti Bengoa
Maiatzak 18.

Iker Gorriti Bengoa
Maiatzak 18.

Iker Alvarez Vaquero
Maiatzak 21.

Alex Arteaga Urrutia
Maiatzak 25.

Antton Esnaola Soraluze
Maiatzak 27.

LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

Dantzari eguna Antzuolan hilaren 15ean


Hurrengo domekan, hilak 15, Dantzari eguna egingo da Antzuolan. Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako 250 dantzari izango dira. Haurrak etxean hartu nahi dituztenek (2-3 haur), Eroskin, Juanitaren dendan edota Izar liburudendan eman behar dute izena ekainaren 12a baino lehen.

Atsedeen programa

Atsedeen programarako eskaerak aurkezteko epea zabalik dago. Zerbitzu hau familientzako laguntza bat da, adimen urritasun zorrotz edota sakoneko 14 eta 50 bat urte bitarteko pertsonaren bat etxean daukaten familientzako laguntza, eta familiaren bizitza kalitatea haunditzeko asmoz sortua. Ezinduek, Uliazpi Fundazioak Donostian duen zentruan pasatuko lukete abuztua. Zentruaren zerbitzua hartzeko, lehenetsuna izango dute urtean zehar inolako heziketa zentru, eguneko zentru edo lantegitan egoten ez diren pertsonak. Interesa dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzura jo beharko dute.

Masaje ikastaroa

Jardun elkarteak masaje ikastaroa antolatuko du uztailearen 1etik 22ra arte, martitzen eta eguenetan arratsaldeko 7etatik 8:30etara. Interesa dutenek izena eman beharko dute ekainaren 24a baino lehen Jardunen edo 76 08 19 edo 76 36 61 telefonoetan (gehienez 20 lagun onartuko dira). Jarduneko bazkide direnek 2.000 pezeta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 2.500. Irakaslea Ainhoa Sanz izango da.



Miguel Altuna Institutuko zuzendariak eta alkateak egin zuten omenaldiaren aurkezpena.

Julio Azkargorta enpresa gizona zenari omenaldia eskainiko zaio

Erramu Zapatu bezperan hil zen 84 urte zituela

Miguel Altuna Institutuak eta Udalak Julio Azkargorta zenari omenaldia eskainiko diote datorren eguakitzean, hilak 13, arratsaldeko 07:30etan Miguel Altuna zaharrean. Bergarako enpresa gizon ezagunaren omenezko hitzaldia izango da eta bertan Mikel Lazpiur enpresa gizona, Juan Carlos Loidi, Jabier Retegi Industria sailburua, Jose Mari Larrañaga Miguel Altuna Institutuko zuzendaria eta Victoriano Gallastegi alkatea izango dira.

Ikastetxeko zuzendariak eta alkateak egin zuten martitzenean Julio Azkargortari eskainiko zaion omenaldiaren aurkezpena. *"Ikastetxe bonek barreman zuzenak izan zituen Julio Azkargortarekin. Elementaleko ikaslea izan zen 1929tik 1932ra arte eta, horrez gain, enpre-*

setan praktikak martxan jarri zituen orain dela 40 bat urte. Baina, eskolaz gain, beste erakunde baten laguntza ere nahi genuen eta Udalera jo genuen. Alkatearen aldetik erantzun ona jaso dugu" esan zuten Larrañagak. Alkateak, bestalde, omenaldia egitea Gobernu batzordean eta Plenoan onartuko direla esan zuten.

Bai alkateak eta baita Miguel Altunako zuzendariak ere Julio Azkargortak herrian egindako lana azpimarratu zuten, *"euskal enpresarioaren prototipoa zela esan daiteke, lantegi eta lanpostu ugari sortu zituen eta beraren ondotik enpresa gizon asko sortu ziren"* esan zuten. Mayc, Men, Cometsa, Textil Bergara edota Confecciones Vascas enpresak sortu zituen eta aitzindari izan zen puntako teknologia erabiltzen.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

Pili Otadui izango da Musika Eskolako presidente berria

Eskolako Zuzendaritza batzorde berria aukeratu da

Musika Eskolak maiatzaren 21ean egin zuen batzar orokorrean aukeratutako Zuzendaritza batzordeak, karguen banaketa egin zuen astelehenean. Honenbestez, Pili Otadui izango da Musika Eskolako presidente berria, azken hiru urteetan lan hori bete duen Jesus Alvarezen orde; presidente orde, ostera, Andoni Etxeberria izango da, Jose Ramon Urkia diruzaina, Maritxu Barrena idazkaria eta Juanjo Arriaran, Josune Garitonandia (Elgetako ordezkaria) eta Rosa Artola (Antzuolakoa) izango dira bokalak.

Musika Eskolan 485 ikasle aritu dira aurtengo ikasturtean, aurrekoan baino hamar gehiago, eta datorren ikasturterako matrikula egiteko epea hil honen 22ra arte izango da zabalik. Une honetan, 22 irakaslek ematen dituzte klaseak eta 21 instrumentu eta beste hainbat klase teori-

ko ikasteko aukera dago. Aurten eskolako komunak berriztu dituzte eta galdara berria egiteko lanak aurrera doaz. Gogoratuko duzuen bezala, "San Martinen Estanpa" ikuskizunean lortutako dirua lan horien kostuari aurre egiteko erabili zen.

Bestalde, Musika Eskolako taldeek ohiko Udaberriko Kontzertua eskeini zuten joan zen domekan Udal Pilotalekuan. Bildutako jende piloak, eskolakoek aurtengo ikasturtean egindako lana gertutik eta bizi-bizian ezagutzeko aukera izan zuten. Kontzertuan Orkestra Sinfonikoak, Haurren Abesbatzak, Akordeoi Orkestak, Gazteen Bandak eta Musika Eskolako haurrek hartu zuten parte. Jaialdiari amaiera emateko Gazteen Bandak eta Musika Eskolako haurrek (argazkian) Musika Eskolako martxa eskeini zuten. Udaberriko jai-kontzertuaren 9. edizio honetan ez zen herri bazkaririk egin.



Joan zen domekan jende ugari bildu zen Udal Pilotalekuan Udaberriko kontzertua ikusteko.

Hitzaldia jubilatuetan

"Bakardadea nola hautsi, depresioa gainditzeko" izenburuko hitzaldia emango du Mercedes Aceras psikologo klinikoak datorren eguastenean, 18:00etan Jubilatuen egoitzan.

Gobernuaren salaketa

Gobernu batzordeak joan zen asteburuan herriko hainbat lekutan agertutako pintadak eta Pentekoste jaietan, domeka goizaldean, izandako ekintzak salatu ditu.

Pazkuetan Epaitegi, Batzoki, Euskadiko Kutxa, hainbat denda eta ondasun publikoren kontra gertatu ziren "ekintza bandalikoak direla eta, Udaleko Gobernu batzordeak bere gaitzespenik gogorrena adierazi nahi du. Gaitzespena, ez bakarrik egindako kalteengatik, baizik eta herri bonetako borondatea ez delako errespetatu; eta gebiengo horren nahia, beste hainbat gauzaren artean, euren erabakiak errespetatu daitezela, eskura dituzten zerbitzuak bere osotasunean gozatu ahal izatea eta jaiak bakean bizi izatea" dela dio Gobernu batzordeak bidalitako idazkiak. Joan zen astebukaeran agertutako gaztetxearen aldeko pintadei buruz, ostera: "eskaerak egiteko beste bide batzuk egonda, ez dugu ulertzen bide hau erabiltzea eta, are gutxiago, bergararren patrimonioa kaltetzea".

Langabezia eta pobrezia

Langabezia eta Pobreziaren aurkako Plataforma Solidarioak Bergaran firma bilketari ekin dio hainbat elkarte eta enpresatan. Asmoa Euskal Autonomi Elkartearen 30.000 sinadura biltzea da, Legebiltzarrean Herri Ekimenezko Lege Proposamena aurkezteko.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09



**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

Beste herrialde batzuk

Mexiko, Sahara eta Guatemalari buruzko diapositibak

Atzo eman zitzaion hasiera "Beste herrialde batzuk" izeneko hitzaldi sortari. Atzoko emanaldian Lauri Askargortak eta Asier Elorzak aurtengo martxoan Mexikon ateratako diapositibak erakutsi zituzten. Hurrengo bi asteetan, berriz, beste bi emanaldi izango dira, saharar herriari buruzkoa, lehenengoa, eta Guatemala ingurukoa, bestea.

Hitzaldiak Jardun elkarteak antolatu ditu eta hiruretan herrialde ezberdinetan hartutako diapositibak erakutsiko dira. Guztiak Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 19:30etan eta sarrera doan izango da. Eba Alberdik Jarduneko dinamizatzaileak esan digunez, "munduko beste herrialde batzuetako errealitatea ezagutzeko, bertan denboralditxo bat eman dutenek bizi izan duten esperientzia ezagutzeko aukera izango dugu eta bertan ateratako diapositibak erakutsiko dizkigute". Oraingoan hiru emanaldi antolatu diren moduan, etorkizunean, ahal denean, horrelako esperientziak errepikatuko direla esan digu Eba Alberdik.


Saharako Tinduffen

Datorren eguenean, hilak 12, "Basamortuan saharar herriarekin. Tinduf" izenburuko emanaldia eskainiko dute Andoni Villarrek eta Alberto Elkorobarrutiak. Biak Arrasateko Eskola Politeknikoko irakasleak dira eta iazko abuztuan Saharako Tinduffeko kanpamendu batean izan ziren, Mugarik Gabeko Ingenieroak

gobernuz kanpoko erakundearen bitartez. Saharar irakasleriaren prestakuntzarako programaren barruan, estatuko hainbat ingeniero abiatu dira azken urteetan bertako irakasleei mekanika, elektronika edota informatika ikastaroak ematera. "Hemendik beste perspektiba batzuekin joan ginen eta esan behar da ezagututako errealitatea uste baino gordinagoa izan zela. 25

eta 35 urte arteko irakasleak prestatzen jardun genuen". Argelia, Errusia edota Kuban ikasten ibilitakoak ziren, baina arlo teorikoa bakarrik. 40.000 laguneko komuniante batean egin genuen lan" esan digu Andoni Villarrek Bertan ateratako 250 diapositiba eskainiko dizkigute datorren eguenean Andoni arrasatearrak eta Alberto aretxabaletarrak Kultur Etxean.

Lekukoen hitzetan ezagutuko ditugu guatemalari eta saharar herrien egoera



Beste herrialde batzuetako errealitatea ezagutzeko aukera izango da.

Guatemalako erresistentzia

Ekainaren 19an, azkenik, "Erresistentzi herri komunikabideak. Guatemalako beste errealitate bat" izenburuz mintzatuko da Mikeldi Bengoa beragarra.

Mikeldi Bengoa Mugarik Gabe gobernuz kanpoko erakundeko kidea da eta 1994ko azarotik 95eko uztailera bitartean izan zen Guatemalako nekazal guneetan, erresistentzi herri komunikabideetan begirale bezala. Eskoletan maisuei laguntzen eta beste hainbat bitartekari lan egiten jardun zuen. Bertan ateratako 40 bat diapositiba eskainiko ditu ordu eta erdi inguruko saioan.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49



Xabier Zubizarreta

Bergarako elizbarrutiko burua

Azken 14 urteetan Santa Marina eta Elosun lanean izan ondoren, Xabier Zubizarreta parrokoak Eibarrera alde egingo du irailean. Zubizarreta (50 urte) pozik dago Bergaran egindako lanarekin eta bi parrokien indarrak batzearen garrantzia azpimarratzen du.

- Zela hartu duzu trasladoaren erabakia?

- Alde batetik espero nuen. Hasiara batean parrokoak sei urterako etortzen gara eta hortik aurrera edozein momentutan etorri daiteke aldaketa. Bikarioak nirekin berba egin nahi zuela esan zidanean "kontxo, hemen badator zerbait." esan nion neure buruari. Irailean Eibarreko San Pio X.a parrokian lanean hasiko naizela esan zidaten.

- Zein izango da zure ordezkoa?

- Xabier Azkoitia. Urretxukoa da, 31 urte ditu eta orain arte Legorretan izan da lanean. Badakit Ordiziko arziprestalgoan

lan asko egin duela. Poztu egiten zara apaiz gazte bat datorrelako. Gainera, apaiz ezberdinak ezagutzeari ona eta aberasgarria da, ez dut uste apaiz bat urte askoan herri batean egotea ona denik.

- Zela baloratuko zenuke hemen egindako lana?

- Niretako urte interesgarriak izan dira. 14 urte egin ditut eta denbora honetako sentimenduak, ezagututako pertsonak, etabar ezin dira ahaztu. Zestoan 9 urte eman nituen eta oraindik ere Donostiatik etortzean beti pasatzen naiz handik.

- Egindako lanetatik zein azpimarratuko zenuke?

- Bailaran egin den lana goraipatuko nuke, apaizok elkartu eta elkarrekin egindako lana. Era berean, parrokia gizartera begira jartzen saiatu gara.

"Ez dezagun parrokismoa egin; San Pedro eta Santa Marinak batera lan egin behar dute"



Xabier Zubizarreta atxabaltarra 1983an heldu zen Bergarara.

Kanporako kontzientzia hori sortzea oso inportantea izan da.

- Egiteke geratu den lanik badago?

- Bergara mailan izan dugun arazo serio eta mingarria eta ukatu ezin duguna gaztetxearen kontua izan da. Askok sufritu dugu eta mingarria izan da benetan. Egiteko gauza asko dago. Bata gazteen problema; bigarren arazo bat gaur apaiz gutxi dagoela litzateke. Orain ere bailaran bi aterako gara (Daniel Eskisabel Antzuolako apaiza eta ni) eta bakarra etorriko da. Beraz, sekularrei gero eta ardura gehiago eman

beharko zaie.

- Santa Marina zela ikusten duzu?

- Zerbitzuak egiteko nahikoa apaiz gaude, baina San Pedrorekin batera lan egitea oso inportantea da. Ez dezagun parrokismoa egin, San Pedro eta Santa Marinak bateratuta lan egin behar dute, biak elkarren ondoan daude eta. Ikuspegi zabal batekin lan egin behar dugu.

- Bukatzeko, egindako elizkizunetatik baten bat gogoan bereziki?

- Mordo bat. Niretako urtero-urtero elizkizun oso inportantea Santa Marina eguna izan da, bi parrokiak elkarrekin ikustean, San Pedro egunean izaten den moduan. Elkartasun hori indartzea inportantea da. Eta San Martin eguna ere oso berezia da.

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Aurtengo ikasturtean 15 ikasle dira Angiozarreko eskolan.
Gipuzkoan, 26 eskola txiki daude.



Eskola txikiak

Eredu zaharraren indarra

Domekan, Eskola txikiak bizirik lemapean, Gipuzkoako eskola txikien jaia egingo da Aduan. Garai batean Bergaran horrelako hainbat eskola bazeuden ere, gaur egun Angiozarrekoa besterik ez da geratzen. 1980ko hamarkadaren erdialdeko krisialdiaren ondorioz, Angiozarreko eskola berrindartuta agertzen zaigu, auzoa bizirik mantentzeko lekua aldarrikatuaz.

Anselmo Vega "Mito" Angiozarreko eskolako irakaslea dugu. Zamorakoa jaiotzez, inguruko hainbat tokitan lanean jardun ondoren, Angiozarrerako trasladua eskatu zuen "Mito"k 1985ean; "erabat konbentzituta etorri nintzen Angiozarrera. Hemen lan egiteko plaza eskatu nuen, bertako esperientzia ezagutu nahi nuelako. Alde batetik, eskola handiak ez zaizkidalako gustatzen

eta, bestetik, txikitik, horrelako eskola unitario batean ikasi nuelako; umeekeko eta beraien arteko komunikazioa ere aberatsagoa dela pentsatzen nuen eta errealtateak, denbora bonetan, horixe baieztatu dit".

"Mito" Angiozarren lanean hasi zeneko egoera bestelakoa zen gaurko baldintzekin konparatuta. Berak azaltzen digunez, "bona etorri nintzenean armairu zahar bat eta apal batzuk besterik ez

zeuden eskolan. Sasoi hartan bezkuntza ordezkaritzak eskola txikiak alde batera lagata zeuzkan. Orduan Bergaran, Uberan, Osintxun eta Mekolalden ere auzo eskolak zeuden eta guztiekin ginen barremanetan. Gure arteko giroa oso ona zen. Orain, berriz, gure eskola da bakarra".

Berrindartzea

Eskola hauen kopuruak beherakada nabar-

mena izan zuen 1980ko hamarkadan. Hezkuntza arduradunek denboraz kanpokoak, zahartuta, baliabiderik gabekoak zirela zioten eta, horrela, gurasoak beren haurrak herri haundietako eskolara eroaten hasi ziren. Gipuzkoan, dena den, eskola askotxok jarraitu zuten. 1986 urtean, berriz, eskola txikiak berrindartzeko ahaleginak egin ziren. Eskola hauekako guraso elkarteek federakuntza bat eratu zuten eta eskola txikiak irakasle zein gurasoek eginiko lanari esker hainbat eskolek aurrera egin ahal izan zuten. Gaur egun, guztira, 823 haur eskolaratzen dira Gipuzkoan eskola txikietan, besteak beste, Aian, Igeldon, Aginagan, Albizturren, Alkizan, Ikaztegiatan, Lizartzan edo Asteasun (guztira 26 eskola dira). Eskolak ondo ekipatuta daude gaur egun eta irakasleen alde-

“Nire ustez, irakaslea eta umeen arteko erlazioa eta umeen artekoa ere aberatsagoa da horrelako eskoletan” ANSELMO VEGA “MITO”

tik ere espezializazio handiagoa dago. Angiozarreko eskola 1992an berriztu zen. Eskolak 192 m² ditu eta bertan 3 urte-tik 10 urtera bitarteko 15 gaztetxo ari dira ikasten. 1980ko hamarkadaren erdialdean 10 ikasle inguru ziren Angiozarreko eskolan eta 1960ko hamarkadan, berriz, 70 bat ikasle zeuden. Azken urteetan, 10 ikasletik gora izan dira eta badirudi 12-14 ikasle bitarte horretan finkatu dela ikasle kopurua.

Eskola txikien ezaugarri nagusiak hauek lirateke: tamainaz, ohizko parametroak baino txikiagoak izatea, eskola publikoak dira denak, D eredua jarraitzen da guztietan eta, azkenik, nekazal giroko herri

ANDONI FERNANDEZ DE LECEA, 4 urte

“Ondoen jolasten pasatzen dut. Bonbero, animaliak eta egurrezko blokeekin. Matematika eta Baga-Bigako ariketak ez zaizkit hainbeste gustatzen. Laister oporrak hartuko ditugu eta Jakara joango naiz”.



GURUTZNE GARAI, 8 urte

“Hiru urterekin hasi nintzen eta nire anai-arrebak ere hemen ibili dira. Ingelesa gustatzen zait, apurtxo bat badakit. Azterketarik ez dugu egin, baina urtean zehar asko ikasten dugu. Gimnasia eta futbola ere atsegin ditut. Futbolearen atezain jokatzen dut”.



IZARGI VEGA, 9 urte

“Gehien gustatzen zaidan ikasgaia matematika da. Eta ipuinak egitea. Gutxien, erdara. Nire adineko bost ikasle gara baina guztiak konpontzen naiz ondo. Denak dira nire lagunak, errekreio orduan denekin ibiltzen naiz jolasean. Noizean behin bakarrik haserretzen gara, baina ondo pasatzen dugu”.



Elosuko eskolakoekin batera antolatutako egonaldia, 1993an.

LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ESKOLA TXIKIEN JAIA DOMEKAN

Duela 10 urte hasi ziren eskola txikien jaia antolatzen. Lehen edizioa Bidanian izan zen eta aurtengoa Adunan izango da, domekan. Antolatzaileek Iñaxio Oliveri Hezkuntza kontseilariari Adunan izateko gonbidapena luzatu zioten eta, lehen aldiz, Hezkuntza kontseilaria eskola txikien jaialdian izango da. Jaiaren helburua eskola guztietako haur, guraso eta irakasleak harremanetan jartzea litzateke. Domekan, 10:30etako hasierako ekitaldiaren ondoren, eskolako haurren emanaldiak izango dira (Angiozarreko eskolako haurrek abesti bat prestatu dute iganderako). Ordu batean Peñagarikano eta

Mendiluzeren bertso saioa, ordu bietan herri bazkaria, 16:30etan euskaraokoa eta 19:30etan trial-sin ikuskizuna. Era berean, egunean zehar hainbat joku izango dira haurrentzat. Domekako jaialdiaren antolaketan ari den Gregorio Olasagasti Adunako guraso baten arabera, "gaur egun oso momentu onean dira eskola txikiak. Lehen baino kontzientzia handiagoa dago eskola hauek mantentzeko, kontzientzia hori oso barneratua dago gizartean, azken batean auzo eta herri txiki horiek bizirik mantentzeko horrelako eskolak ezinbestekoak baitira. Azkenengo urteetan gauza asko lortu da. Helburua kaitatezko

hezkuntza eskeintzea da eta adibidez aurten ingeleseko irakasle bat izatea eta 2 urtekoentzako gelak lortu ditugu. Baina oraindik ere badaude hobetu beharreko hainbat gauza, Tolosa eta Zarautzeko inguruetarako koordinatzaile bana eta tokian tokiko irakasle kopuru egokia izatea adibidez. Horiek lirateke gure aldarrikapen nagusiak". Olasagastiren ustez, "pedagogia aldetik, haurrak umeak diren heinean, auzoan, euren ingurunean hezi behar dira eta soziologikoki begiratura, herria edo auzoa mantentzeko ezinbestekoak dira, are eta gehiago Gipuzkoan honelako herri txikiak duten garrantzia kontutan izanik".

edo auzoetan kokatuta daude. Eskola hauendako zailtasun nagusienetarikoa bat metodologia egoki bat topatzea izan zen. "Mito"ren esanetan, "zailtasun logikoak dira ho-

riek. Adin ezberdineko irakasleak izanik, dena batera ezin da eman eta Amara Berriko ereduari jarraituaz, txokoen sistema egokiena zela garbi ikusi nuen eta basieratik

erabili dugu. Sistema honen arabera, umeak eda-deka banatzen ditugu eta normalean bizpahiru talde izaten dira lanean. Momentu berean hiru aktibitate ezberdin egiten

dituzte taldeka eta, horrez gain, talde bakoitzean aukera daukate zein lan egin nahi duten aukeratzeko. Horrela, umearen autonomia bilatu nahi da. Bestalde, hainbat ekintza (gimnasia, ipuin kontaketa, antzerkia, jolasak edo errekreo ordua) elkarrekin egiten dituzte". Aurten Bego Zabaleta andereñoa hasi da "Mito"rekin lanean. Zabaletak ingelesa eman eta bestelako ekintzetan ere parte hartzen du.

Imitazioaren mundua

Angiozarreko irakaslearen ustetan, irakaskuntza sistema honekin ikasle guztiengana heltzeko aukera dago; "metodo honen eskola-porrota gutxitu egiten da. Azkarra denari aurrerago heltzeko aukera ematen zaio, beti ere erreferente batzuk dauzkalako aurrerago diren ikasleekin eta, nagusiagoak direnen imitazioagatik, asko



Eskola zaharraren ondoan, 1992ko Santa Ageda egunean.

ikasten dute. Imitazioaren munduan oinarritzen da sistema didaktiko hau. Imitazioaren bidez pilo bat ikasten dute haurrek, batzuek besteengandik asko jasotzen dute. Irakasleak ez dauka dena azaldu beharrik, batzuetan ikasleek beraien laguntzen diote eta konpentsazio moduko bat da hori. Edade nabasketara oso aberatsa da nire ustez. Haundiek beren ezagutzak indartu egiten dituzte eta, besteei erakustean, inportanteak sentitzen dira. Zailtasunak? Arazoak izaten dituzten ikasleengandik datoz, baina horrelako gela batean errezago beltzen zara arazoak dituztenengana”.

Bestalde, hezkuntza arloan izandako erreformak ez du aparteko eraginik izan eskola txikie-

tan. “Erreformak planteatzen zituen hainbat elementu jadanik martxan genituen hemen: interrelazioa (umeez umeez ikastea) eta umearen egoera abiapuntutzat harturik erakustea bain zuzen. Aurretik ere gauza horiek bultzatzen genituen eta, beraz, erreformak ez gaitu ezustean harrapatu”.

Eskola txikien problematika lantzeko (Ikastetxeko Curriculum Proiektuak) eskola txikiak elkartu egin dira. Angiozarrekoa Zarautz inguruko eskolekin ari da lanean (beste talde batean Tolosaren ingurukoak daude) berezkoa zaien proble-

matikari irtenbideak topatu nahirik. “Arazo nagusiak dibersidadea (maila asko batera egoitea) eta umeak nekazal giro batean bizi direla lirateke. Gure gizarte honetan guztia atomizaturik dago, eta umeak ere bere adinekoekin bakarrik erlazionatzen dira. Gaur egun ez dago lehen zegoen interrelazioa eta honelako tokietan, beharragatik edo, interrelazio haundiagoa egoten da, jolasetan eta eguneroko bizitzan ere bai. Erlazio aberatsa da hori. Bizitzan gertatzen den moduan, imitazioagatik asko ikasten da: anaia txikiek nagusiengandik

ikasten dute, nagusiek gurasoengandik... kate moduko bat da prozesu bori” dio “Mito”k.

Etorkizunari begira, ikastetxe guztietan gertatzen den moduan, arazo nagusia ume falta da. Angiozarreko eskolan, datozen bi urtetan ez da haurrik sartuko eta, beraz, eskolaren etorkizuna zalantzan dago. “Mito”k azpimarratzen duen moduan, “eskolak sekulako bizia ematen dio Angiozarri eta eskola mantentzeko abalegin guztiak egin behar dira. Baina aurrera jarraitzeko behar-beharrezkoa da haur berriak etortzea. Ikusi egin behar...”.

Masaje ikastaroa

Uztailaren 1etik uztailaren 22ra arte
astearte eta ostegunetan,
arratsaldeko 7etatik 8.30etara.

Irakaslea: Ainhoa Sanz


Ikastaroaren ordaindu beharrekoa:
JARDUNeko bazkideek 2.000 PTA,
Bazkide ez direnek 2.500 PTA.

Izena emateko epea:

ekainaren 24ra bitartean
JARDUNen edo
76 36 61 eta 76 08 19 telefonoetara deituz.
Plaza mugatuak: gehienez 20 lagun.



Antolatzailea:




Medikuntza alternatiboan sinisten duzu?



Ramon Barrutiabengoa

Sinistu? Ez dakit sinisten dudan; ni ez naiz sekula joan baina beste batzuen ondo joan zaie. Nire aldetik ez dut horren beharrik izan, orain arte behintzat.



Jose Gonzalez

Ez. Nahiago dut anbulategiko medikuenera jotzea... Gaztetan hanka apurtu, petrikilo batengana joan eta herren geratu nintzen.



Rufi Sanchez

Ez dut petrikiloetan sinisten. Beldur piska bat diet gauza horiei. Nahiago dut medikuarena joan eta ohiko pastila agintzea.



Tomasa Zuazua

Sekula ez naiz joan, eta ezin dizut esan sinisten dudan ala ez. Momentuz, ez daukat horren beharrik. Baina medikuetan konfiantza haundiagoa daukat.



Mari Lourdes Cobos

Medikuntza tradizionalak konfiantza haundiagoa ematen dit. Behin, aspaldi, petrikilo batekin izan nintzen, baina normalean azken soluzio moduan ikusten dut.



Bittor Herran

Ez dut gehiegi sinisten gauza horietan. Ez da batere ziurra nire ustez. Jende asko joaten da baina..., nik behintzat nahiago dut ez joatea.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 76 71 19

**FRANTSES
IRAKASKUNTZA**
Ikastaro trinkoak
uztailaren 2tik 22ra

Izena emateko epea:
ekainaren 27ra arte.

Informazio gehiago:
Mizpildi, 3 1. ezkerre. Bergara.
Tf. 76 30 55
Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



Ortografiaren auzoan

Azterketa garai honetan buruhauste-iturri dute estudianteek ortografia. Baina ortografia eskolaz kanpoko mamua ere badela sinesturik nago. Gure ortu ortografikoan nor ez da oroitzen inpernuko "H"-ak bere sasoiari sortu zuen kakanahasteaz? Politikak espresibiderik ematen ez, eta alfabetoko letra ikurrin bihurtu! Jamaika ikusteko jaiok gaituk! Baina etxekoneko ortuan ere apenas asunik falta den! Orain dozenerdi bat urte tilde zirkunflexoa -txapel itxurako azentua- zela eta, demaseko katramila sortu zen Frantziari. Tilde hori alfer samarrekoa dela eta kasu batzuetan behintzat kentzea proposatu zuen norbaitek... eta akabo!

Eztabaida hain mina eta garratza izatera iritsi zen, non garai hartan Frantziako presidente zen Patxi Mitterrand aitaita pottolokak beheko suaren ondotik hitz eginez, lasaitasuna eta bakea eskatu zien borondate oneko frantses guztiei, eta frantsesaren tildeak ez erabiltzeko tortoloxak letxe.

Etxekonean etxekonekoak, eta bestekoan bestelakoak.

Udaberriko euri-zaparradarena bezala izan da Garcia Marquez Nobelunak gaztelaniaren ortografia arintzea eskatu izana. Handik hilabete eta erditsura eskabidea adarra jotzeko egin zuela aitortu zuen, eta guztia bertan behera isildu zen. Baina bertean, zenbat buruko min!

Jende burutsu askojakina honela dabilen bitartean, gurean, Uztapidek ortografia dela eta, idatzitakoak etorri zaizkit gogora. Uztapide ez zen letretan jantzia, ordea, hitzetan baizik.

"Irakurtzen ere -idatzi zuen eskola garaia oroituz- ikasten genduan frenorik gabeko automobilak bezala: ez puntu eta ez koma. Dana segidan. Guk ez genduan iñon kalterik egiten. Lana ugari ateratzen da orrela. Eskribitzen ere jarduten genduan, ortografiaren auzoan (...) Orain, ogei urte arte eskolan ibiltzen dira, eta halere ez dute naikoa ikasten".

Markos BALENTZIAGA



Akusatuaren eserlekuan

Uholdeak izan ditugu abiapuntu igandea ezkerotik, baina aste honek ekarri digu aspaldi espero genuen beste irudi bat ere, Luis Roldanen irudia akusatuaren eserlekuan. Berarekin batera beste zazpi pertsona, bere testaferra eta bere emaztea barne.

Atxilotu zutenetik Roldanen kontra egiten ari den lehen epaiketa dugu honako hau, eta itxaron duguna ikusita, epaiak iraungo dituen bost hilabeteak ez zaizkigu luzeak egingo sententzia beharrezkoa baldin bada.

Roldanen defentsa epaiketa bertan behera uzteko ahaleginetan ibili baldin bada ere, astelehenean epaiketa irekita gelditu zen. Goardia Zibilaren idazkari nagusi ohiarentzat 35 urteko gartzela zigorra eskatu du fiskaliak sekretupean erabiltzen diren diru kopuruetatik bi mila milioi pezeta lapurtzeagatik.

Roldanen defentsak mota guztietako argudioak erabiliko ditu epaiketak aurrera egin ez dezan, edota bere bidetik eramaten, baina epaiketa prestatzeko erabili den denbora guzti hau zerbitutarako balio izatea espero dugu.

Roldanen aurkako lehen epaiketa albiste izango dugu aurreantzean eta nahiko genukeena zera da, balio izatea Roldan kasuaren inguruan dauden hutsuneak argitzeko. Luis Roldan eseri zaigu epailearen aurrean, hurrengo hileetan beste batzuk espero ditugu. Epaitu gabe daude oraindik beste kasu batzuk, Fílesa edo Banesto esate baterako.

Ane Miren LIZARRALDE

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

**INGELES
FRANTSES
ALEMANA**

MATRIKULA ZABALIK! LANGABETUENTZAKO LAGUNTZA BEREZIAK

Ekainaren 23tik uztailaren 11ra.

- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.
- ADIN GUZTIAK: HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO HIRU EDO LAU ORDU.

INFORMAZIOA:

Begarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87





■ **Otaba jaiak**

Elosuko Otaba jaietara amaiera emateko **herri bazkaria izan zen astelehenean** bertako Elurmendi elkartearen. 60 lagun inguru bildu ziren eta, giro alaituan, primerako bazkaria egin zuten. Egun guztian zehar **Laja eta Landakanda soinu-joleak** aritu ziren eta arratsalde partean auzokoentzat jolasak antolatu ziren. Gauerarte iraun zutenek, afarria ere egin zuten Elurmendi bertan. Bestalde, domekako pilota

partiduetan, benjamin kategorian, Julen eta Joseba Muguruzak 22 eta 18ko emaitzarekin irabazi zieten Eneko Muguruza eta Gotzon Lizarralderi eta, kadetetan, Aspiazu azkoitiarra izan zen txapelduna finalean Ander Mugurizari 22 eta 15 irabazi ondoren. Plater tiraketan, berriz, 72 lagun aritu ziren lehian eta auzo eta herri arteko kiroletan bergararrak izan ziren nagusi, bigarrenak osintxuarrak sailkatu ziren, jarraian elosuarrak eta azkenik, antzuolarrak. Jaietako zozketan, **1.455** izan da saritutako zenbakia.



■ **Ezkontza**

Jose Carlos Basauri eta Mari Jose Larrion bergararrak joan zen zapatuan ezkondu ziren **Labegarrietako elizan**. Ondoren, Zelai-zabal jatetxean senitarte eta lagunaren artean bazkaria izan zuten. 200 bat lagun bildu ziren mahaiaren inguruan eta primeran pasatu ei zuten. Argazkia euren lagunek ekarri dute Berrigarara, baina ez dugu jakin izan ezkontza bidaia nora egin duten. Kontuak kontu, zoriontsuak izan daitezela eta ezkontza-bidaia ondo igaro dezatela opa diegu.

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

Leire Madariaga

Lau bat urte daramatza Virago antzerki taldean. Dagoeneko *Entremeses* eta *Las criadas* antzezlanetan parte hartu izan du Leirek eta orain *La dama de Alba* gertatzeko lanetan dira. Bien bitartean, Ingenieritza Elektronikoko ikasketetan burubelarri ari da Leire.

- Norekin ikasi duzu interpretazioa?

- Egindako ikastaroetan eta txikitatik egindako antzezlanetan.

- Zer behar da aktorea on bat izateko?

- Interpretazioa gustatzea eta lan asko egitea.

- Entsaiuak ala funtzioak?

- Biak. Ensaiatzean lasaiago zaude, baina funtzioetako tentsio hori ere ondo dago.

- Jendeaurrean beldurrik?

- Aurretik bai, baina eskenatokian beldurra galdu egiten da.

- Nerbioak lasaitzeko zer?

- Pertsonaia sartu eta aguantatzea.

- Lan klasikoak ala egungoak?

- Biak. Nahiz eta jendeak klasikoei beldur piska bat izan.

- Dramak ala komediak?

- Komedia.

- Antzerki autore bat?

- Mihura.



“Al Pacino, Joaquin Kremel, Victoria Abril eta Nuria Espert ditut gustuko eta Maribel Verdu ezin dut ikusi ere egin. Loterian 100 milioi irabaziz gero, munduari buelta emango nioke”

- Zein lan antzestu nahi zenuke?

- *Los melindres de Belisa*.

- Antzerkira asko joaten zara?

- Ahal dudanean.

- Ikusitako azken lana?

- *Carcajada salvaje*.

- Talderik gustokoena?

- Taun-Taun adibidez.

- Antzerkia ala zinea?

- Antzerkia, egiazkoa, autentikoagoa delako.

- Filme bat?

- Donnie Brasco.

- Zinean/antzerkian negar egin duzun azken aldia?

- *Melocoton en almibar*

antzezlanarekin. Barregarria zen baina, Aurora Redondoren lanak hunkitu egin ninduen.

- Eta barre?

- Gehiago kostatzen zait barre egitea.

- Aktorerik gustokoenak?

- Al Pacino eta antzerkian Joaquin Kremel.

- Eta aktoreak?

- Victoria Abril eta Nuria Espert.

- Eta ikusi ere ezin dituzunak?

- Fernando Rey eta Maribel Verdu.

- Telesailik gustokoena?

- Goenkale.

- Hobby bat?

- Antzerkia eta igeriketa.

- Musika talde bat?

- U2.

- Loterian 100 milioi irabazita, zer egingo zenuke?

- Munduari buelta emango nioke.

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala, 5 ☎ 76 53 09

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Dokorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 20 34

ETXEBIZITZA

Etxea salgai Mugertzan.
☎ 76 05 88.

Apartamentua salgai Laredon. 4. pisua, igogailua. 6,5 milioi. ☎ 76 44 34.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 54 86.

Etxea salgai San Antonion. 2 ganbara. ☎ 76 46 22.

Pisua alokairuan Laredon.
☎ 76 13 86 (gauzez).

Gela bat konpartituko nuke. ☎ 76 91 33 (Iraide).

Pisua salgai Frontoian. 160 m2. ☎ 76 24 42.

Pisua salgai baserri batean. 190 m2. ☎ 76 03 43.

Pisua salgai herri-erdian. Kontsultarako egokia.
☎ 76 25 31.

Pisua alokairuan ekainetik irailera Donostian, Amaran.
☎ 76 31 79.

Pisua salgai Martokuan.
☎ 76 15 49.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 42 65 (gauzez).

Pisua salgai Barrenkalean.
☎ 76 41 38.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 47 27.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 50 50.

Pisua salgai Zarautzen.
☎ 76 53 69/13 34 67.

DENETARIK

Bainuko altzariak oparitzen ditut. ☎ 76 44 34.

Saiako armairua salgai.
☎ 76 39 75 (gauzez).

Mastin eta belgiar artzai txakurraren arteko txakurra oparitzen da. ☎ 76 47 45.

Umeentzako kapota eta paseorako aukia behar dut. ☎ 76 46 48.

Ume baten bizikletako jarelkua salgai. ☎ 76 20 32.

Lau urteko neskatila baten jertsei gorria (eskuz egindakoa) galdu da Zernai ondoan. ☎ 76 32 94.

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 909 56 90 45/ 76 57 87.

Peugeot 205 kotxea (SS-AG) salgai. ☎ 71 61 21.

Kotxeko irrati ekipoa salgai. ☎ 76 04 40 (gauzez).

Eskumuturrekoa galdu dut. ☎ 76 53 10.

Seaska berria salgai.
☎ 76 36 61.

Honda Scoopy motorra salgai. ☎ 76 15 06.

GAC motorra salgai. 65.000 pezeta. ☎ 76 47 45.

Zilarrezko giltzatak galdu da San Pedro eta Konde artean. ☎ 76 10 39.

Paparreko orratza topatu dut. ☎ 76 40 64.

LANA

Udan lan egingo nuke.
☎ 76 52 00.

Informatika klaseak ematen dira. ☎ 76 45 21.

Tabernan lan egingo nuke. ☎ 76 26 73 (Gloria).

Neska bat behar da andra bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 07 24 (gauzez).

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 04 57.

Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 76 71 21.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 53 30 (gauzez).

Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut Bergaran.
☎ 76 33 26.

Emakume batek haurrak zaindu edo garbiketa lanak egingo lituzke. ☎ 76 19 74.

Ileapaindegi mistoa alokairuan Aretxabaletan. Lokal zentrikoa, 60 m2.
☎ 77 12 70/79 94 39.

Andrea eskaintzen da sukaldari, garbiketa edo umezain lanetarako. ☎ 76 70 85.

Haur zaintzaile edo tabernari lanak egingo nituzke. ☎ 76 22 11 (Amaia).

Etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. ☎ 76 70 15 (8etatik aurrera).

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA





“Xabierrek eta nik bikote ona egiten dugula esaten dute, eta plazara irtetzen garenean dugun guztia ematen dugula”

“Urtean 30 bat txapelketan aritzen gara. Iaz, 10 irabazi eta zortzitan bigarren geratu ginen”

IANIRE URBIETA, EUSKADIKO DANTZA TXAPELDUNA

“Egunero ordubetez entsaiatzen dut eta oso gogorra da aita gainean egoten baita”

Ianire Urbieta (11 urte) bergararra, 14 urtez azpikoentzako Euskadiko dantza sueltoko txapeldun geratu zen Xabier Azurmendi zegamarrarekin batera, Pazkuetan Bergaran. Iaz ere txapeldun geratu zen Juantxo Urbietak, bere aitak, entrenatzen duen bikotea. Bergarako dantzar txapeldunen artean, ordezkari gazteena denarekin berba egin dugu.

- Datorren urtean hirugarren aldiz irabazteko prest?

- Ahaleginduko gara, baina azken urtea izango da, Xabier bikotekideak 13 urte ditu eta.

- Ondoren, nagusien txapelketara aurkeztu beharko zarete.

- Bai, baina hor nabarmentzea zaila da, maila oso altua dagoelako. Edu Muruamendiarazek eta Amaia Agirrek lortu dutena oso meritu haundikoa da, hiru bider jarraian irabaztea oso gutxik lortu baitute. Aitak bi aldiz irabazi zuen Amaia Agirre osintxuarrarekin batera, baina ez jarraian.

- Zenbatero entsaiatzen duzue?



Ianire Urbietak eta Xabier Azurmendi zegamarrak bikote egiten dute.

- Egunero ordubetez aritzen naiz etxean aitarekin. 12-14 pieza egiten ditut. Bakarrik entsaiatzea oso gogorra da, aita gainean izaten dudalako. Bideoak ere ikusten ditugu, egindako hutsak zuzentzeko... Bestalde, zapaturo Billabonako Martin Dantza Eskolan entsaiatzen dut Xabier bikotekidearekin. Hiru orduz entrenatzen dugu aitaren aginduetara. Goi mailan ibiltzeko egunero entsaiatu beharra dago, bai neguan eta baita udan ere.

- Urtean zehar zenbat txapelketa?

- 30 bat edo izaten dira, Bergarako jaietan hasi eta urrira arte edo, ia astero herrietako jaietan. Bizkaian eta Gipuzkoan izaten dira gehienak. Iaz 10 txapelketa irabazi genituen eta beste zortzitan edo bigarren geratu ginen.

- Zein da zuen estiloa, hau da, zer nabarmentzen du epai-mahaiak txapelketetan?

- Aitak esaten duenez hankekin oso ondo marikatzen dugu eta oso belarri ona ei daukagu. Bikote ona egiten dugula esaten dute eta plazara irtetzen garenean dauka-

gun guztia ematen dugula, ez garela kokiltzen edo nerbioso jartzen.

- Noiz arte dantzan?

- Bost urte nituenean hasi nintzen eta ez dakit noiz arte arituko naizen. Oso gustora nabil.

- Badago ezberdintasunik dantza eskolen artean?

- Bergaran eta Azkoitian antzera, baina Lezon, Hernanin eta Bizkaian ezberdin egiten da. Estilo aldetik oso diferenteak dira, eta hori berehala ikusten da. Eskola bakoitzak bere nortasuna dauka. Dantzan egiteko estilo ezberdinak daudenez, txapelketetan baloratzeko kriterio batzuk bateratzen saiatzen dira Dantzarien Batzarrean.

- Moises Aspiazu dantza taldean ere lan ederra egiten ari dira.

- Bai, orain oso bikote gazteak daude taldean eta lan haundia egin beharko dute. Hala ere, Alex Torre eta Iosune Fernandez hirugarren geratu ziren Bergaran. Ion Aranburu eta Amaia Lazkano ere gaztetan oso ondo ibili ziren, txapeldunak izan dira behin baino gehiagotan, baina orain nagusien txapelketara aurkeztzen dira eta oso zaila da irabaztea.

A	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MANITOU LAM	6	2	11	2
2.	ARLOTEAK/OILAGORRA	6	2	3	0
3.	LA JUVE	3	2	4	4
4.	EZINLEIKE	3	2	3	3
5.	MONAGTXURRAK	3	2	4	5
6.	ANGIOZAR	1	2	3	4
7.	XURRUPAK	1	2	4	6
8.	COAR	0	2	2	10

B	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	BILDURBAREK OPEL/LAM	6	2	9	2
2.	A ZE FLAXA/ETXAGI	4	2	3	0
3.	ALTOS PORNOS	3	2	3	2
4.	MATXAKATEGI	3	2	2	3
5.	OSINTXU	3	2	3	5
6.	FACUTA	2	2	1	1
7.	SHAKTALE	1	2	2	6
8.	THE KILLERS	0	2	0	4

EMAITZAK

OSINTXU-ALTOS PORNOS	2-1
SHAKTALE-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-5
ARLOTEAK/OILAGORRA-EZINLEIKE	2-0
XURRUPAK-ANGIOZAR	3-3
MANITOU/LAM-MONGATXURRAK	4-1
LA JUVE-COAR	3-1
ALTOS PORNOS-THE KILLERS	2-0
BILDURBAREK OPEL/LAM-OSINTXU	4-1
FACUTA-SHAKTALE	1-1
MATXAKATEGI-A ZE FLAXA/ETXAGI	0-3

PARTIDUAK

Eguakitza 6

19:15: ANGIOZAR-MANITOU/LAM
20:30: ARLOTEAK/OILAGORRA-XURRUPAK

Astelehena 9

19:15: SHAKTALE-MATXAKATEGI
20:30: THE KILLERS-A ZE FLAXA/ETXAGI

Martitzena 10

19:15: OSINTXU-FACUTA
20:30: ALTOS PORNOS-BILDURBAREK OPEL/LAM

Eguastena 11

19:15: XURRUPAK-EZINLEIKE
20:30: MANITOU/LAM-ARLOTEAK/OILAGORRA

Eguena 12

19:15: LA JUVE-ANGIOZAR
20:30: COAR-MONGATXURRAK

Jokoz kanpo



JOSEBA DURAN

MATXAKATEGI

ZELA DOA TXAPELKETA ZURE TALDEARENTZAT?

Nahiko ondo. Bi partidu jokatu ditugu eta bat galdu eta bestea irabazi egin dugu.

EZUSTEKORIK IZAN DA TXAPELKETA?

Ez ditut partidu asko ikusi, baina Manitou taldea da aurtengo sospresarik handiena.

POZIK TOKATU ZAIZUEN

MULTZOAREKIN?

Bai, biak nahiko antzerakoak dira.

GOLIK SARTU DUZU?

Ez.

SARTZEKO ESPERANTZARIK?

Bai. Gainera aurrealdean jokatzen dut eta golen bat sartzeko esperantza badaukat.

JOKOZ KANPO ASKO EGITEN DUZU?

Ez, aurtun bat edo pitatu didate.

ARBITRATUKO ZENUKE?

Ez, denbora asko kentzen du eta.

TXAPELKETA IRABAZTEKO

FABORITORIK?

Manitou.

TXARTELIK JASO DUZU?

Ez, hemen gutxi ateratzen dituzte.

ASKO PROTESTATZEN DUZU?

Ez.

NOR FITXATUKO ZENUKE ZURE TALDEARENTZAT?

Ronaldo.

ESPINILLEREKIN JOKATZEN DUZU?

Bai, badaezpada ere.

ZE SISTEMA ERABILTZEN DUZUE?

4-4-2.

KOMENTARIOA

HASI DA IPINTZAKO TXAPELKETA ETA URTE OSOAN ZEHAR FUTBOLA TELEBISTATIK IKUSI ONDOREN IKASITAKOAK PRAKTIKAN JARTZEKO ORDUA HELDU DA. AZKENENGO URTEETAN BIKAIN ARITU DEN AMILOTX TALDEAK EZ DU JOKATUKO ETA, BIZITZAK AUERRERA JARRAITZEN DUENEZ, BAKARRIK BI IHARDUNALDI JOKATU DIRENEAN MANITOU TALDE BERRIA DA TXAPELKETA "SENTSAZIOA". BI PARTIDU JOKATU DITUZTE ETA BIETAN GARAIPEAN ERREZA LORTU DUTE JOKO ONA EGINAZ. HALERE, HURRENGO EGUASTENEAN ARLOTEAK OILAGORRA TALDEAREN AURKA NEURTUKO DITUZTE INDARRAK ETA HOR ERAKUTSI BEHARKO DUTE TXAPELKETA IRABAZTEKO GAI DIREN. BESTE TALDEAN BILDURBAREK OPEL/LAM DA NAGUSI. BI PARTIDUAK GALTZEN HASI ARREN, BUKAERAN GORRITXOEN AURRELARIK GOL SORTA BIKAINA LORTU DUTE. BIGARREN, BI PUNTURA, LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA BIKAIN ARITU DEN A ZE FLAXA TALDEA DAGO MATXAKATEGIRI EURIPEAN JOKATUTAKO PARTIDUAN 3 ETA 0 IRABAZI ONDOREN. BESTELA, ANTOLATZAILEEK EGINDAKO GOMENDIOAK KONTUTAN HARTU DITUZTE TALDEEK ETA ORAIN ARTE EZ DA IZAN INONGO ISTILURIK. HALERE, TALDE GUZTIK EZ DIRA BALOIAREN BILA JOATEN ETA HORRELA JARRAITZEN BADUTE, BALOIREN BAT ZIUR GALDUKO DELA.

GOLEGILEAK

4 Gol

Igor Alberdi (MANITOU/LAM)

3 Gol

Juan Luis Etxaniz (BILDURBAREK OPEL/LAM)

2 Gol

Asier Alberdi (EZINLEIKE)

Iñigo Herreros (LA JUVE)

Peli Iturrikastillo (MANITOU/LAM)

Andoni Arroio (MONGATXURRAK)

Harkaitz Arana (ARLOTEAK/OILAGORRA)

Gorka Davila (XURRUPAK)

Ibon Larrañaga (BILDURBAREK OPEL/LAM)

Gustavo Abajo (BILDURBAREK OPEL/LAM)

Gol 1

Guillermo Miner (EZINLEIKE)

Mikel Garitano (XURRUPAK)

Martin Balzategi (LA JUVE)

Juanjo Castro (COAR)

Patxi Vallejos (A ZE FLAXA/ETXAGI)

Gorka Aiestaran (MANITOU)

Josetxo Lizarralde (ALTOS PORNOS)

Iñigo Aranguren (SHAKTALE)

BERRIGARA
S A R I A

Futbito txapelketako final laurdenak

Gipuzkoako eta Arabako futbito selekzioek estatuko txapelketarako sailkatzeko kanporaketa jokatu duten zapatuan 18:00etan Labegaraieta kiroldegian. Halaber, joan zen astean jokatuako promozioko partiduan Bildurbarek Opel/Lam taldeak lehen mailari eustea lortu zuen Haltzari taldeari 5 eta 2 irabazi ondoren. Domekan, arrastaldeko 4etan, Ortzik eta Artusamakek promozioko beste partidua jokatu dute. Bestalde, antolatzaileen erru baten ondorioz, laugarren mailatik SLO igoko zefa adierazi genuen joan zen astean, baina Etengabe taldea izango da hirugarren mailara igoko dena. Era berean, zapatu eta domenak jokatu dira final laurdenak eta honako neurketak izango dira: Zapatuan, barruan, Jauja OH Zerezosek eta Mongatxurak jokatu dute ordubatean eta A Ze Flaxa Etxagik eta Azpeitxi Jatetxeak arrastaldeko 4etatik aurrera; 7etan, Arloteak/Oilagorak eta Manitouk eta 8etan, azkenik, Bar Canalejasek eta Pagomendik. Domeka arrastaldean final erdietako bi partiduak jokatu dira.



Bartzelonan jokatu diren estatuko txapelketarako sailkatu dira.

Ariznoa gimnasia erritmikoko kirolariak Euskadiko txapeldun

Amaia Ortiz de Urbina eta Nerea Mendizabal jubenil mailan eta Ane Miren Fernandez junior mailan Bartzelonan uztaildeko lehenengo astean jokatu diren Espainiako txapelketan aritzeko sailkatu dira Euskadiko txapelketa irabazi ondoren. Txapelketa taldeakoa da eta Fernandezek Gasteizko neska batekin osatu du taldea. Lehiaketan aroak, mazak, zinta eta soka probak egin behar izan dituzte eta lau arloen batuketak eman die txapelketa.

Hiru kirolariak pozik daude lortutako sailkapenarekin eta Ortiz de Urbinak adierazi digunez, "zaila da, baina podiutik igotzen saiatuko gara. Izan ere, ez genuen espero Euskadiko txapelketa irabaztea eta oso pozik gaude". Alicia De Cesar entrenatzaileak, berriaz, bere kirolariek egin-

dakoa azpimarratu du. "Euskadin maila handia dago; balere, ez dakit beste elkarte autonomoetako taldeek zer maila duten eta denetik pasatu daiteke. Maila handia baldin bada, atzealdean geratu gaitezke, baina ez bada, aurrealdean amaitu dezakegu. Halere, sailkapena lortzea berez sari handia da eta horrek ez du esan nahi Bartzelonara turismoa egitera goazenik" esan digu De Cesarrek.

Txapelketa uztailaren 3tik 6ra bitartean jokatu da eta geratzen den denboran entrenamendu gogorak egingo dituzte, entrenatzeko arazoak dituzten arren. "Lagutzen digutena entrenatuko dugu, ez baitugu entrenatzeko ordu nahikorik. Gainera, orain bi talde egin behar ditugu, kirolari batzuk txapelketarako prestatuko ditugu; gainontzekoek beste prestakuntza

egingo dute. Ondorioz, kiroldegian ordu gehiago egin behar ditugu, ez dira nabikoa orain sartzen ditugun orduak" dio Ariznoa taldeko entrenatzaileak. Gaur egun lehiaketan Ariznoako 13 kirolari ari dira parte hartzen eta Antzuolan 15 kirolariz osatutako taldea sortu dute aurten. Halere, Bergaran eskola kiroleko kirolariak ezin izan dituzte urtarilerara arte hartu entrenatzeko lokal egokirik ez izategatik. "Horregatik aurten neska gutxi izan ditugu eta espero dugu datorren urtean, Udalak lagatzen badigu, neska gehiago izatea, hortik ateratzen baitugu diru sarrerarik handienak klubarekin jarraitzeko. Orain, oso lguntza gutxi jasotzen dugunez, oso egoera txarrean gaude eta Udalariren entrenatzeko ordu gehiago eskatzen diogu" bukatu du De Cesarrek.

Futbito
NESKEN
 TXAPELKETA

■ EMAITZAK

Potzu-The Hurricanes. 3-0
 Nahikari-PWA. 0-3
 Gu Geu-Blue Star. 0-4
 Power-Burdinezko Damak. 5-1

■ PARTIDUAK

LTB-Burdinezko Damak
 Zapatua. 12:00. Miguel Altuna.
PWA-The Hurricanes
 Zapatua. 12:00. Miguel Altuna.
Pow Rantxeras-Gu Geu
 Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.
Potzu ta Zapaburuak-Blue Star
 Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.

■ PENALTIAK



Esther Martin

PWA

**ZEIN DA TXAPELKETAKO
 JOKALARIRIK ONENA?**
 Silvia Valor.

ETA TALDEA?
 LTB.

**ZE POSTUTAN GUSTATZEN ZAIZU
 JOKATZEA?**

Atezaina naiz.

LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?
 Hristo Stoichkov.

ALKIZA ALA DE PEDRO?
 De Pedro.

BESTE KIROLIK EGITEN DUZU?
 Ez.

■ GOLEGILEAK

Uxue Lazkano
 25 gol.
Aitziber Montaña
 24 gol.
Silvia Valor
 22 gol.

Alfonso Ena

Beti Busti piraguismo elkartekoa

Alfonso Ena Beti Busti piraguismo elkartearen sortzaileetarikoa bat da. Joan zen astean, elkartearen 10. urteurrena ospatzeko, Albinara egin zuten irteera eta uztaierako Saturraranda Deba irteera antolatuko dute. Beti Busti Euskal Herriko barrualdeko herri bateko piraguismo elkarte bakarra da.

- Zela sortu zenuten Beti Busti elkarte?

- Gauza kuriosoa izan zen, telebistan piraguismoari buruzko erreportaia ikusi genuen eta 003 zenbakira deitu genuen Gipuzkoako piraguismo federazioaren telefono zenbakia eskatuz. Federaziora deitu eta Santiagotarrak klubarekin jarri gintuzten harremanetan. Pasaitarrek asko lagundu ziguten, ikastaroak eman zizkiguten eta materiala ere laga ziguten. Kluba sortzeko animatu gintuzten.

- 10 urte hauetan zer bilakaera izan du Beti Busti elkarteak?

- Lehenengo bost urteak nahiko gogorrak izan ziren. Ez genuen ia laguntzarik jaso eta oso jende gutxi apuntatu zen elkartearen. Orain dela 5 urte inguru, berriz, jende berria sartu zen eta eskola kirolean ere sartu ginen. Hortik dirulaguntzak lortu genituen eta gaur egun jendeak alokatzeko 14 piragua ditugu. Urtean zehar ikastaroak antolatzen ditugu eta hortik laguntza asko jasotzen dugu.

- Zelako jendea joaten da ikastaroetara?

- Ikasleen artean arrakasta handia du eta Uda-ko kanpainan ere jende asko apuntatzen da. Denetik dago, baina batez ere gazteak izaten dira gehien animatzen direnak. Gero, jarraitzen dutenak oso gutxi izaten dira, materiala eskuratzea zaila baita.

- Garestia da materiala?

- Errekan aritzeko piragua batek 90-100 mila pezeta balio dezake. Gero, neoprenoa, sira eta bestelako jantziak eroste-

ko, beste 60.000 pezeta gastatu ditzakezu.

- Zuekin harremanetan jartzeko zer egin behar da?

- Hori daukagun beste arazo handi bat da. Izan ere, 10 urte daramatzagu eta materiala lagatzeko ez daukagu lokalik. Datozen urteetarako lokal bat lortzea izango da erronka nagusia.

- Zer moduz igandean Albinan?

- Nahiko gaizki, eguraldi txarra egin baitzuen. Halere, Debara joan ginen eta elkarte batean afaria egin genuen.



Beti Bustik 14 piragua ditu alokatzeko.

“Lokalaren premia dugu, materiala non laga izateko”



Argazkia: Luis Larrañaga "Kikio"

Lagun kuadrila 1976ko Pazkuetan

Aurtengo Pazkuak joan zaizkigu eta nostalgikoentzat orain 20 urte baino gehiago dituen argazkia ekarri dugu aste honetan erretratu zaharrera. Orduan ere juergazale bikainak genituen herrian eta herriko giroa animatzeko ez zen *artistarik* faltan izaten. Bestalde, herriak urte hauetan izandako aldaketan lekuko, horra hor, argazkiaren atzealdean, Masterrekan garai batean zegoen Cinema. Urte dexente pasatu dira bai goiko erretratua atera zenetik. Argazkian agertzen direnak hauek dira, ezkerretik esumara:

Zutik: Luis Larrañaga "Kikio", Jose Madariaga, Genaro Manso, Jesus Larrañaga, Francisco Matias Igartua "Patxikin", Jose Mari Aseginolaza, Eduardo Muruamendiaraz, Dadin Miota, Jose Mari Carril, Isidro Itxasmendi eta Jose Luis Gonzalez.

Eserita: Jose Luis Loizaga "Pepillo", Laureano Askargorta, Sabin Gallastegi, Mario Sanz, Luis Unzurrunzaga eta Luis Mari Larrañaga "Bombas".

Industria
homikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

BERGARAKO osasun gida

■ ALBAITARIAK:

- ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobila: 907 48 71 19
- ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)
- ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAICO ALBAITARI OFIZIALA)
- IRASTORZA BENGEO SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)
- NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47

Zurradero, 6 behea
Mobila: 908 77 17 32
Mobila: 908 77 17 32
Iribar baserria ANTZUOLA
Koldo Eleizalde, 28

☎ 76 70 67
☎ 76 43 29
☎ 76 43 29
☎ 76 63 46
☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA ISABEL

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN VICTOR

Oxirondo 4, 1. B

☎ 76 32 06

■ DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL
- BERGARA HAGIN KLINIKA
- GOROSABEL J. ALBERTO
- IRIARTE IDOIA
- SUDUPE FELIPE
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.

Iparragirre, 1 behea
Bidekurutzeta 6, 2
Fraiskozuri, 5 behea
Artekale 1, 1. C
Matxiategi, 18 behea ezkerre
S. Arrieta 3, 2. B

☎ 76 27 95
☎ 76 05 77
☎ 76 56 88
☎ 76 01 65
☎ 76 07 66
☎ 76 38 54

■ DERMATOLOGOA:

- GARCIANDIA CRISTINA

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

■ FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)

Masterreka, 7 4. C

☎ 76 43 71

■ GINEKOLOGOA:

- SERRANO DOKTOREA

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

■ MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL JOSE JABIER
- AZPEITIA IRUNE
- CASANELLAS JABIER
- PAYROS AITZIBER
- ETXEBERRIA ANA BELEN

Boni Laskurain 1, 2. A
Agorrosingo igerilekuak
Boni Laskurain 5, 2. E
Bidekurutzeta, 46 behea
Errekalde, 6 ezkerre, ANTZUOLA

☎ 76 15 74
☎ 76 20 51
☎ 76 03 78
☎ 76 52 62
☎ 76 60 13

■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- BENITO ISABEL

Bidekurutzeta 46, behea

☎ 76 52 62

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA

Boni Laskurain 2, behea

☎ 76 20 50

■ PEDAGOGOAK:

- IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)

Simon Arrieta 3, 2. E

☎ 76 26 42

■ PODOLOGOAK:

- ALTUBE EDURNE
- AZPIAZU ARANTZAZU

Simon Arrieta, 2
Herri Lagunak, z/g.

☎ 76 07 84
☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

- GALLASTEGI PABLO

San Martin Plaza 2, 1. ezkerre

☎ 76 26 64

■ PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)
- URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)
- ZUBILLAGA ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)

☎ 76 14 80
☎ 76 53 13
☎ 76 30 76


■ REUMATOLOGIA:

- MORAGUES CARMEN

Ramon Maria Lili, 2

☎ 76 59 39

DENONTZAT



Denontzat, neska eta mutil, gizon eta emakume, zahar eta gazte. Asteko egun guztietarako. Etxean aritzeko. Lanerako. Ikasteko. Kanean jendearekin solasean aritzeko. Maitatzeko. Desiatzeko. Denerako. Euskarak zure bizitza esparrua zabaltzen du.

1997ko UDA IKASTAROAK
Ekainaren 26tik uztailaren 23ra, 5ordu goizez.

MAILA GUZTIAK:
EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta EGA.


MATRIKULALDIA ekainaren 9tik 20ra.
Prezioa: 11.000 PTA (materiala barne).

16urretetik gorakoentzat.



BERGARAKO
UDAL EUSKALTE

Zabalotegi,
Tf. 76 44 53



DENERAKO

